

EZ UKATZAILEA EUSKAL TRADIZIOAREN BIDETIK NOIZ TA NOLA

Bilbo, 1988-XII-13

Alfonso Irigoien

(Erdal eraginez zabaltzen hasi berri den usuario sintaktiko oker baten aztarrenen bila)

Tituluan agertzen den *ez ukatzailea* ez da erdarara 'no negativo' erara itzuli behar, erdarazko ohitura baten ondorik okerreko bidetik bat baino gehiago, baita Euskal Telebistako denik ere, euskal tradizioaren kontra egiten hasi berri den bezala, 'el [elemento] negativo *ez*' erara baizik. Erdarazko 'no negativo' euskaraz *ukatzaile ez dena* erran behar litzateke euskaldun guztien legearen arauera. Ikus Azkue-ren hiztegian *gauza-eztandu* hitza, lexikalizazioaren bidez hitz bakar bihurturik *gauzeztandu* moduan erabiltzen duguna, hain zuzen ere zimentarrian *gauza ez dana* duela.

Ikertzen ari garen joera okerraren bidetik abiatu behar dugula defendatzen hasi den artekoren batek edo bestek inoiz erantzun izan du euskarazko *ukatzaile ez dena* erako multzoa hitz bakarra ez dela, eta forma simplea behar dugula, baina ene ustez halakori ozenki eta lau haizetara jakinerazi behar zaio ez dela konturatzan bi hitzez osatzen direla biak, bai erdarazkoa: *no negativo*, eta bai euskarazkoa: *ukatzaile eztena*, nahiz eta hau hirutan izkribatu ohi den, *ukatzaile ez dena*, eta hizkuntza batekoak bestekoak baino gehiago balitu ere argumentuak batere ez duela balio, zeren, munduko edozein alderditan, hizkuntza batetik bestera halako aldeak izaita zeharo arrunta eta komuna baita, eta batean hitz bat erabilirik erraiten dena bestean hitz bitan edo gehiagotan emaiten da maiz, eta beste kasu batzutan alderantziz hizkuntza beretan. Hau gauza elementala da. Baina izari gabe erdararen mende eroririk egoiteak ez dio hala dela ikusten uzten, eta bere subkonszientean erdarazko era bakoitzak euskarazko ordain zeharo berdina izan behar du.

Bada oraindik itsuago mintzatzen denik ere, zeren erraiten baitu: *halakoak hiztegitzak finkatu eta zabaldu ditu eta lege bihurtu dira*. Eta hori legetzat hala formulatzea serio ez izaitaiz gainera jakitate gabeko perla faltso eta engainagarria onaren izenean gainerako guztioi nahi ta nahi ez irentsierazi nahi izaita da, hizkuntzaren etorkizuneko normalkuntzarentzat balio ez duela, horrek leiza-zulo sakona sortzen baitu betiko euskaldunen aho-mihitan korritzen duten egiazko hizkera bizien eta hizkerok berok haintzat hartu gabe eta bazterturik utz ditza-keen pseudo-hizkuntza alegiazko eta ortopediko baten artean, maila bien arteko simbiosi artifiziale ez denaren ukatzaile baita. Okerrena da Euskaltzaindiko Gramatika Batzordearen lanean berean bultzatzen dela joera hori, eta, izan ere,

alferrikoa izan zen iaz Arrate-n, azken testua esku artean hartu bezain laster oinarritzko beste gauza batzuren artean horrezaz ere ahoz arrazoiak eman ondoan, neure desadostasuna agertzea, Batzordeari berdin baitzaio, dirudienez. Eta hone-xegatik beragatik uste dut Euskaltzaindi osoak arazo hau seriocki hartu behar lukeela, eta ikerketa sakona eginez gero arrazoizko ondorioak gogoan atxiki, bere kideen artean botoka erabakitzeke kontua ez baita, tradizio historikozko jakitatean oinarri harturik baizik. Bestela, baldin bakoitzari gogoak emaiten dionaren arauera hizkuntzaren sistema aldatzeko hautua libro uzten balitz oso bide arriskutsuan sartuko ginatke, aldapan behera abiatu rik datorren osina noraino helduko litzatekeen ere ezin jakin litekeela (1).

Hona hemen etsenplu batzu hizkuntza bat baino gehiagoko hitzen artean gerta daitezkeen simetriarik ezak argitzeko, gaztelaniaz: *relaciones*, euskaraz: *artu-emanak / artu-emonak*, ikus Azkue, *harr-emanak*, ikus Lhande, edo antzekoak, hitz bi elkaturik; gaztelaniaz: *trabajar*, euskaraz: *lan egin, behar egin*, hitz bitan; gaztelaniaz: *tala*, euskaraz: *egur-mozte*, ikus Azkue, hitz bi elkaturik; euskaraz: *astia*, —*enetzat nahi ta nai ezkoa da asti aski izaite halako lana garaiz amaituko badut, eta horretarako bestelako eginkizunen bat utzi beharko dut*—, gaztelaniaz: *tiempo libre*, hitz bitan; gaztelaniaz: *comedor*, frantsesez *salle à manger*, hirutan; gaztelaniaz: *[un] joven*, *[una] joven*, frantsesez: *[un] jeune homme* eta *[une] jeune fille*, bata gizonetzkoa eta bestea emakumezkoa, hitz bitan; eta abar, eta abar.

Okerbidean abiatu rik korritzen hasi den zenbait tipo ikus dezagun:

a) “Adizki ez **jokatuak**” §1.2.2, 26 orr., §3, 65 orr., “...ez dugu haatik esan aditz horren barnean forma **jokatuak** eta ez **jokatuak** ager dakizkigukeela” irakur

(1) Cfr. LUIX M. MUJICA: *La Prefijación clave del euskara técnico y urbano*, Bilbao 1978. Argitara bezain laster nik neure artikululu baten sakon astindu nuen: “Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca”, *FLV*, 32 (1979), 243-258 orr.

§10 epigrafean, 89 orr. eta hurrengoak, “DES, EZ, -GABE (*Des, In / Im*)” tituluaren azpian tratatzen da arazoa: “En nuestro DICCIONARIO GENERAL Y TECNICO, —dio—, su entrada ha sido total y decisiva —la de DES—; multitud de veces, sin embargo, en clara competencia con el sufijo autóctono EZ. Las voces con el prefijo DES en ese diccionario superan las 1.500. La variante EZ, sin duda, tiene también gran desarrollo en nuestro idioma, y es preciso potenciarlo grandemente, dado su carácter autóctono y fácilmente comprensible (*ezbide, ezgauza, ezbehar*, etc.)” “Nosotros proponemos estas formaciones lexicales, con idea de *negatividad*, desde la base del paraprefijo EZ. La mayoría de estos vocablos están presentes en nuestro diccionario técnico: *ezatentzio* ‘desatención’, *ezafinake-ta* ‘desafinación’, *ezabonatu* ‘desabonarse’,..., *ezmendeko* ‘desobediente’,..., *eztrebe* ‘desmañado’, *eznormal* ‘descomunal’, *ezmerezi* ‘desmerecer’, *ezlagundu* ‘desacompañar’, *ezkontseilatu* ‘desaconsejar’,..., *ezgobernatu* ‘desgobernar’, *ezesan* ‘desdecir’...”. “EZ, igualmente, no es desdeñable para vertir conceptos afines a la *negatividad*, como la *privación* o la *exclusión*... *ezordain* (impago), *ezdamu*, *ezgoise*, *ezlan*, *ezbalio*, *ezbake*, *ezlegatasun*, *ezneurri*”, eta nik neure kontura gaineratzen dut: “y lindezas semejantes que en mi crítica de 1979 no señalé porque no merecía la pena de perder el tiempo recopilando más despropósitos de los que recogí”.

Baina dirudienez ene kritika ez da aski izan horren eta pareko hiztegiaren eragin bihurria zeharo bazterrerazteko, zirrikituren batetik Euskaltzaindiraino bertaraino ere oihartzunen bat sartu baita.

daiteke, §1.2.2., 26 orr., *Euskal Gramatika, Lehen urratsak-II*, Bilbao, 1987, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea-k, autore moduan agertzen dela, eginikoan. Beheratxoago, ordea, *adizki jokatuak nahiz jokatugabeak* dio, baina baita ere berriz *adizki ezjokatuen artean*. Eta beste leku batzutan “*Erabilera ezjokatu hauek*”, §3, 67 orr., baina “*Forma jokatugabeak*”, §3.1.4, 71 orr., “*Partizipio jokatu gabea*”, §4.3.2, 89 orr.

Edozein euskaldun lege zaharrekok dudarik tipiena ere egin gabe terminologia bera hautatuz gero hurrengo datorrena besterik ez luke erranen: *forma jokatuak eta jokatu gabeak*, edo *jokatu gabekoak*, edo *jokatu bakoak* < *ba(ga)koak*, edo horren pareko zer bait. Eta ez du merezi horrezaz gehiago ezer gaineratzea, hain zuzen ere horretarakoxe baitu hizkuntzak *gabe*, *bage*, edo *baga* elementua, euskalkien arauera. Hala ere erran behar da partizipioen aitzinetik ez elementua proklitiko bihurtu gabe erabiltzea kontextu batzutan aski normala dela: *Etsamina hura orduan ez egin izana sekula ez zaio ahantzi, zeren ondorio nabarmenak ekarri baitzizkion*.

Norbaitek berehala lerradake euskaraz nonbait arruntak direla edo gutienez izan direla hurrengo formak: *ezizen*, *ezbehar*, *ezbide*, *ezune*, *ezuntsa*, *ezurte*, *ezuste*, *ezgauza* / *ezkauza* —eta ez da nahasi behar *gauzaez* formarekin, ikus Azkue-ren hiztegian: *gauzaez bat da gizon ori*—, *ezeuki*, *ezikusi egin*, *ezikusiarena egin*, *ezaxola*, *ezjakin*, *ezezagun*, *ezikasi*, *ezdeus* / *ezteus*, Azkue-ren hiztegian azkenengo *ezteus* dela-ta erraiten da: “Proviene, por falsa analogía, de la aglutinación de *ez* + *deus*, como *ezkauza* de *ez* + *gauza*, y *etxaramon*, de *ez* + *jaramon*”. Izan ere era bat baino gehiagoko forma lexikalizatuak dira, batzu substantibo eta beste batzu adjetibo funtzioan erabiltzen direnak. Azkue-k bere *Morfología vasca*-n, Bilbao 1925, §126, dio:

“Los afijos evolutivos de origen adverbial son por lo menos tres: *ez* (prefijo en unos, sufijo en otros vocablos), *ka* y *len* que también precede a veces y sigue otras al tema”. Ikertzen dugun *ez* delakoari dagokionez, *gauzaeza* hitzaz gainera, *ondoeza*, *prestueza* eta *ezetarakoeza* emaiten ditu, berrekaile legez ondorik doala. Bestelako era hitz bitan agertzen direnak, ordea, ugari ekar ditzakegu gogora eta nahi diren beste asma, entzule edo irakurle euskaldunak ulertuko ez dituen beldurrik batere gabe: *dirurik eza*, *lanik eza*, eta abar, eta abar. Baita partizipioen ondorik ere: *hartu ez*, *jan ez* / *hartu ezarren*, *jan ezarren* / *hartu ezean*, *jan ezean* / *hartu ezik*, *jan ezik*, eta abar, eta azkenengo *ezik*, ezezko zentzuzkoa, ez da nahasi behar *ez ezik* delakoan agertzen den *ezik* juntagailuarekin, —*ez eze* aldagarria ere bada gutienez—, hala nola, *jan ezik gose izango da*, alderdi batetik, eta *jan ez ezik erre ere egingo du* edo *jan ez eze erre ere egingo du*, bestetik.

Aipatu direnez gainera orain batzuk, ez denek, *desberdin* forma zaharraren ordez *ezberdin* izkribatzen dute, purismoaren eraginez *des-* berrekailea *ez-* formara erakarri nahi izan baitzen garai baten, hura itsusizat hartzen baitzuten, egungo egunean, ostera, halakotzat ez dugula. Azkue-k hiztegian erraiten du: “Larramendi, en su Diccionario, acogió este afijo —*des*— dándole carta de naturaleza; y aunque es de uso general alguna palabra que le contiene (como *desbardin*, *desberdin*, ‘desigual’), *desegin*, ‘deshacer’, no se puede sostener su carácter indígena”. Edozein modutan ere ez da berdin *desegin* eta *ez egin*, eta arrazoi horregatik *desegin* forma ezin aldatu izan da inola ere, eta bizi bizirik dirau forma bakarra duela.

Aipatu dugun *Euskal Gramatika-n, Lehen urratsak-II*, badira, ordea, beste honako hauek ere:

“*Beste hauek, ordea, ez-gramatikalak dira*”, §15.1.2, 440 orr., baina ezin dudarik egin daiteke euskara normalean *beste hauek, ordea, ez dira gramatikalak* erran behar dela.

“**Beti nekusan han perpausa segur aski ez-gramatikala litzateke*”, §14.2.3.1.1, 406 orr., baina zuzena ... *ez litzateke gramatikala*. Ez gara hemen sartzen erraiten dena ondo dagoen ala ez argitzen, nola errana dagoen ikertzen baizik.

“*Perpaus ez gramatikalak sortzen baitzaizkigu*”, §2.3.3.2, 59 orr., baina zuzena *perpaus gramatikal ez direnak* sortzen baitzaizkigu.

Hala ere inoiz zuzen ere agertzen da: “*Ondoko esaldia ez da gramatikala*”, §2.2.3, 45 orr.

Euskal Gramatika, Lehen urratsak-I (eraskina), delakoan, Bilbao 1987, ostera, “*Jentilizioak izan ezik, gainerako izenondoak izenaren ezkerreko partean paratuz gero, izen sintagma ez gramatikal bihurtzen da*”, dio, §1.1, 21 orr. Baina euskaraz honela jarri beharko litzateke:..., *izen sintagma ez da gramatikal bihurtzen*. Lehengoaren egituraren azpian hurrengo erdarazko frasea dago: “..., *el sintagma nominal se hace no gramatical*”.

Europako kulturaren bidetik korritzen duten hitzen arauera *agramatikala* erabili izan balitz ez zen gauza bera izanen, ikus grekoz *αγραμμία*, letren ez ezagutzea. Baina nola N. Chomsky bide horretarik ibili izan ez den ez da gure artera halakorik iragan, eta posibilitate hori lege zaharreko izanarren existitzen ez balitz bezala jokutzen da.

Ikertzen dugun jokabidearen izkutuan gordetzen denak ondorio izugarriak dakartza, erdarazko (*agua*) *no potable* itzultzeko (*ur*) *ez ona* erabili izan baita, eta hori ontzat hartuz gero euskaraz zuzen errana litzateke **ura ez ona da*, baina mundu guztiak dioena *ura ez da ona* erakoa da, eta besteak belarrian min egiten du. Itzulpen normala eginez gero *ez da edateko / ez da ona edateko / edateko ez den ura / ez edan hemengo urik / ez edateko ura / ur ez edatekoa / ez edatekoa*, eta abar, norberaren gustuaren arauera nahi diren beste forma zuzen asma daitezke. Baina nik ez dakit gure artean zer gertatzen den gehienetan okerrena hautatzeko. Edo hobeto erranik begien bistan dago erdaraz *no potable* maiz irakurri duela edonork, eta horren ereduak da euskaraz ipintzeko oker hautaturikoa.

Harrigarriena da, neurorrek Arrate-n salatu nuen bezalatsu, *Euskal Gramatika, Lehen urratsak-II*, delakoan, §16.2.2, 492 orr., erraiten dela: “**ez egin du; *ez ekarri du* eta horien antzekoak, segidarik ez badute behintzat, ez dira euskara”. Eta nik orain horren autoreei diostet: **Ez ona da* erraitea ez alda gauza bera?

Beste alderdi batetik komunikabide publikoetan notiziak emaiterakoan erdarazko *proposición no de ley* bezalatsuko formak maiz *proposamen ez legezkoa* erara itzultzen dira euskarara inolako kezkarik gabe, *proposamen legezko ez dena* edo *legezko ez den proposamena* erakoak egin beharrean.

Toponimiarako ditugun eredu zaharren arauera ere hala litzateke. L. Mitxelena-ren artikuluan baten, “*Algunos nombres de Contrasta*”, *ASJU*, XIX-2 (1985), 598-599 orr., zenbait toponimo biltzen dira Gerardo López de Guereñu-ren baitarik

harturik, *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Bilbao 1983, 415-423 orr., gure arazorako ondo datozenak: *Aizluceadana*, *Artiadana*, *Cruceadana*, *Goicoeliseadana*, *Larradana*, *Lesiadana*, eta abar; erdaraz: 'lo que es la peña larga' o 'donde está la peña larga' o 'donde está Aizlucea', eta abar. Berdintsuak biltzen ditu J. M.^a Jimeno Jurio-k Nafarroarako, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona*, *Cendea de Cizur*, Estella-Lizarrá 1986: *Arrizabal yturri denecoan*, 60 orr., *Vi erreccac balcjen diren lecuam*, 64 orr., *Buzu andia denecoa*, 68 orr., *Domingoren ychaurra denecoan*, 79 orr., *Domingoren ychaurr sabalcoa denecoan*, *Urdeac eciten direnecoan*, 80 orr., *Dorrondoco ychaurra denean*, 82 orr., eta abar, eta abar.

Halako toponimoetan ezezko erakorik normalki agertzen ez bada ere sortzailak ezezkoan egin beharrean aurkitu izan balira ezin dudarik egin daiteke nolako erakoak emango zituzketen. Gutxienez *dana* / *eztana*, *denekoan* / *ezteneakoan*, *batzen diren lekuan* / *batzen ez tiren lekuan*, *denekoa* / *eztenekoa*, *etziten direnecoan* / *etziten ez tirenecoan*, *denean* / *eztenean*. Beraz egungo eguneko itzulpenetan, gorago ikusi dugunez, *proposamen legeko dena* edo *legeko den proposamena* / *proposamen legeko ez dena* edo *legeko ez den proposamena* egin behar dela argi dago. Toponimian orduko euskaldunek ez zuketena baiezkorako *Butzu handia denekoa* sortu ondorik ezezkorako **Butzu ez handia denekoa* egingen, eta *Dorrondoko itxaurra denean* forma finkatu ondorik **Dorrondoko ez itxaurra denean* erranen.

Okerreko bidekoen artean Uitzin joan den azaroaren 26-an "Lexikologi erizpideak finkatzeko X. jardunaldiak" titulupean izaniko berriketetan txosten egileetarikoa batek erabili zituen zenbait seinalatuko ditut, —han bertan mintzatu nintzen gai honez eta jokabide hau zalantzan ipintzen saiatu nintzen—:

Izen ez-propioa. ZUZENA: *Izen propio ez dena* edo *propio ez den izena*. Gainera *izen ez-propiodunek*, ergatibo plurala, egiteraino heltzen da, eta hori euskaraz absolutuki ezinezkoa da, *-dun* berrekailua beti baiezko zentzuzkoa baita. Izan ere ezezkorako *gabe* / *gabeko*, *baga* / *ba(ga)ko*, eta abar, hartzen da. Hau da: *izen propioduna* alderdi batetik, 'izen propioa duena', eta *izen propio bakoa* bestetik, 'izen propiorik ez duena'.

Ipar eta Hego direlakoen izaera ez-propioa onartzekotan,... ZUZENA: *Ipar eta Hego direlakoen [izen] propio ez izatea onartzekotan*, ...[*Ipar Afrika, Hego Amerika*, eta halakoez ari da].

Euskal testu ez-teknikoetan. ZUZENA: *Euskal testu tekniko ez direnetan edo tekniko ez diren euskal testuetan*.